

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu ekainaren 4tik 10era bitarteko asterako

Astelehena, 2018.eko ekainak 4

Astean zehar, Nafarroako Liburutegiak bi hitzaldi hauek hartuko ditu: “La vida en Armenia”, Virginia Mendozaren eskutik, asteartean, eta “El desierto de los tártaros, Dino Buzzatirena”, Regina Salcedoren eskutik, asteazkenean. Halaber, haurrentzako saio berria egingo da “Ongi etorri ipuinetara” programaren barruan, asteazkenean, eta, ostegunean, peluxeentzako pijama-jai bat egingo da.

Zineak film hauek ekarriko ditu Nafarroako Filtmotekara: “¡Qué verde era mi valle!”, asteazkenean, “Cuando dejes de quererme”, ostegunean, eta “Cuando el destino nos alcance”, ostiralean.

Hitzordua musikarekin asteartean izango da, Baluartean, Miguel Ituarte piano-jotzailearen eskutik.

Prestakuntza Huarte Zentroan mamituko da, “APERITIFAK: Camping sonoro” saioaren bidez, Chico Trópico-ren eskutik, larunbatean, eta “Artxiboa plazara!” topaketa-jardueraren bidez “Zeharkako estetikak. Aisialdiko ekosistemak” eta “Komisariotza-ikerketaren inguruko egoitza” tailerrak ere egiten ari dira.

Karlismoaren Museoak “El robo del Toisón” izenburuko escape room delakoa proposatuko du berriro.

Erakusketei dagokienez, Oteiza Museoak “Interpretazioak” programa berreskuratuko du, Imanol Marrodán artistak Alzuzako zentroan egin duen “Arma isilak gerra lasaietarako” erakusketa-proiektuaren bidez.

Bukatzeko, katedraleko klaustroko lanetarako bisita gidatuak antolatu



Aste honetarako antolatutako ekintzetariko baten irudia.

dira berriro. Eta aurrera darrai Museoen Zerbitzuak bultzatutako “Pasaporte: Museatu! eta bidaiatu” kanpainak.

[Esteka honetan](#) duzu kultur [programazio osoa](#):